

# **KONPUTAZIO-BALIABIDEAK (Arina)**

## **ESLEITZEKO GIDA**

### **1 Oinarrizko printzipioak**

Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Ikerkuntzarako Zerbitzu Nagusiek, barruko zerbitzu komunaren artean, ikerkuntzari aplikaturiko informatikarako zerbitzu orokorra dauka, besteak beste.

Ikerkuntzari aplikaturiko informatikarako zerbitzu nagusietan erabil daitezkeen zientzi kalkulurako azpiegituraren erabilera (aurrerantzean, oro bat, Arina deituko dena) zuzentzen dituen oinarrizko printzipioak honako hauek dira:

- Arina, ikerkuntzari aplikaturiko informatikaren zerbitzu nagusiaren zientzi kalkulurako azpiegitura da, UPV/EHUko akademi pertsonal guztiak erabil dezakeena, bai eta bestelako gune publiko edo pribatu, enpresa eta erakundeek ere, itundutako zerbitzuen emate-komenio edo kontratuen eremuaren barruan.
- Pertsonal akademikoak eskatutako baliabideak, orotara, Arinaren prestazioetatik gora egongo balira, esleipena zientzi ikerkuntzaren bikaintasunezko erizpideen arabera egingo da.
- Urtero, ohiko deialdia egingo da konputazio-baliabideak eskatu ahal izateko, hauen gestioa KB3ren<sup>1</sup> ardura izanen delarik. Honez gain, KB3k egoki eritziko balu, komeniko liratekeen ezohiko deialdi guztiak egin ahal izango ditu.
- Erabilgarri osoaren %20a ez da deialdi bidez esleituko eta Arinako teknikariek administratuko dute.
- Akademikoek eskatutako baliabide konputazionalak, ikerkuntzarako zerbitzu orokorren zuzendaritzak xede honetarako ezarritako tarifen arabera fakturatuko zaizkie eskatzaileei.
- Ikerkuntzarako errektoreordeak egoki lertzeke baliabide guztiak erabili ahal izango ditu, unibertsitatearen zientzi ikerkuntzarako berebiziko garrantzia luketen proiektu estrategikoetan erabil daitezzen.

---

(1) Kalkulu-Baliabideak Banatzeko Batzordea. KB3ren inguruko informazio gehiago [www.ehu.es/SGI](http://www.ehu.es/SGI) estekan ikus daiteke.

## 2 Deialdiak

Konputazio-baliabideak bi eratako deialdietan esleituko dira, hots, *ohikoak* urtean behingoak eta *ezohikoak*. KB3k modu eta denbora egokietan argitaratuko ditu deialdiok, ikertzaileen komunitateari behar bezala iris daitezzen.

### 5.1 Ohiko deialdia:

Ohiko deialdian Arinaren %80a esleituko da eskatzaileen artean, ondoren deskribatuko diren prozedurei jarraituta:

5. Eskaturiko denbora esleituko zaie, Arinaren erabilgarri osoaren %1aren atalasetik beherako premia izango duten taldeei. Era honetara esleitutako denbora ezin joan daiteke Arinaren %10ekin gora. Hala ere, horrela gertatuko balitz, atalasea murrizten joango da esleitutako denbora %10etik behera geratu arte. Gainerako taldeei adjudikatutako denbora, gutxiengutxienez, talde honi dagozkion denbora handienaren berdina izango da.
6. Aurreko ohiko deialdiaren epean %80tik beherako denbora kontsumitu duten taldeei, kontsumitu gabeko portzentaiaren balio bereko murrizpen portzentuala aplikatuko zaie.
7. KB3ren ahala da, baldin eta puntu honetan behar izandako denbora erabilgarria aise gaintitzen bada, talde guztiei murrizpen homogeneoa aplikatzeko erabakia hartzea. Osterantzean, atal honetako 4. puntuan deskribaturiko prozedura aplikatuko da.
8. Zientzi balioespenaren bidezko esleipena. Balioespen onena lortuko duen eskatzaileari eskatutako denbora osorik emango zaio. Balioespen txarrenekoari murrizpen handiena aplikatuko zaio eta, gainerakoei, bi hauen arteko proportzio linealean. Aplikatutako murrizpenik handiena, eskatutako denbora erabilgarriarekin berdindu artekoa izango da. Balioesteko erizpideak dira:
  - a) Arina, bi urte edo gehiagotan zehar, erabili ohi duten taldeetarako, puntuatu egin dira zerbitzuaren argitarapen-artxiboan<sup>2</sup> azken bi urteetan bildutako argitarapenak
  - b) Talde batek zerbitzuan alta emanda bi hilabete badaramatza, puntuazioa mailakatu egingo da alta emanda daraman denboraren arabera (adibidez, puntuazio birengatik biderkatuko da, alta emanda urte betea eginez gero).
  - c) Beste eratako ekarpenen balioa, kongresuetan parte hartzea, doktorego-tesia eta beste, kasu, KB3k zehaztuko du.
  - d) Puntuazioa normalizatuta egongo da arloaren zientzi eraginaren inguruan.

---

(2) Informazio gehiago [www.ehu.es/SGI](http://www.ehu.es/SGI) estekan eskura daiteke.

## **5.2 Ezohiko deialdia**

Ezohiko deialdien helburua beste talde batzuek itzulitakoa edo soberako denbora banatzea, ohiko deialdian emandako denbora agortu duten ikerketa-taldeen artean. Ezohiko deialdian eskaturiko denbora erabilgarria baino handiagoa denean, ohiko deialdian baliatutako mekanismo bera aplikatuko da eta erizpide ber-berak erabili.

## **6 Talde berriak**

Arinaren baliabide teknikoak edozein unetan eskatu ahal izango dizkiote KB3ri [www.ehu.es/SGI](http://www.ehu.es/SGI) estekan xede honetarako jarritako inprimakiaren bidez.

KB3k proiektua balioztatu eta ahaleginak egingo ditu erabilgarria baino denbora gehiago ez ematen. Salbuespenez, erabilgarria baino denbora handiagoa eman ahal izango du baldin eta proiektuak halakorik justifikatzen badu eta, honen ondorioz, linealki murriztu beharko ditu une horretan Arinan lanean ari diren taldeei esleitutako denborak.

## **7 Neurri ezohikoak**

KB3k aparteko murrizpenik aplikatu ahalko die taldeei, ardura gabe ari direla erizten badio, zerbitzuaren funtzionamendu normala eragotziz eta gainerako erabiltzaileen kaltetan (esaterako, azkenik kontsumitzen dutena baino eskari askoz ere handiagoak egiten dituzten taldeak, nahiz eta egin beharreko itzulketak egiten dituzten).

## **8 Erreklamazioak**

Erabiltzaileek alegazioak egin ahal izango dizkiote idatziz KB3ri, honek erabakitakoaren inguruan. Halaber, helegiteak jarri ahal izango dituzte, KB3ren erabakiak direla eta, ikerkuntzarako errektoreordearen aurrean.